

Eskatutako baimenak

Java aplikazio batek 'Segurtasun-alerta' elkarrizketa-koadroan bistaratutako baimenak eskatu ditu. Java aplikazio batek fitxategi-atzipena eta ordenadoreko beste baliabide batzuk behar izan ditzake exekutatu ahal izateko. Ekintza horietako bakoitza egiteko baimen espezifiko bat behar da. Sare-administratzaileak zehaztuta izango du zenbat eta zein baimen onartu. Onartzen diren baimenen kasuan, sare-administratzaileak zehazten du baimen horiek eskatzen direnean zuk horren berri izango duzun ala ez. Bestela, Java aplikazioak sare-administratzaileak automatikoki onartutako baimenak baino gehiago eskatzen dituzenean jakinaraziko zaizu.

Software-argitaratzaileari buruz dakizuna eta programak eskatzen dituen baimenak zein diren kontuan izanik, zuk erabaki behar duzu Java aplikazio hau instalatu eta exekutatu duzun. Ziur ez bazaude, egin klik Segurtasun-alertaren elkarrizketa-koadroko **Adosen** eta egin klik Segurtasun Abisuaren elkarrizketa-koadroko **Ezen**.

Baimen bati buruzko informazio gehiago nahi baduzu, egin klik bertan:

[Fitxategi SI](#)

[Sareko SI](#)

[Haria](#)

[Propietatea](#)

[Exekuzioa](#)

[Islatzea](#)

[Inprimaketa](#)

[Erregistroa](#)

[Segurtasuna](#)

[BezeroBiltegia](#)

[UI](#)

[Sistema-korronteak](#)

[Erabiltzailearentzako Fitxategi SI](#)

[Multimedia](#)

[Pertsonalizatua](#)

Ordenadoreko baimenen ezarpeni buruzko informazioa lortzeko, ikus behean Inguruko Gaiak.

{button ,AL("A_IDH_SEC_ALERT_VIEW_JAVA_CUSTOM_SETTINGS")} [Inguruko Gaiak](#)

Ikusten edo aldatzen ari zaren atzipen-mota bistaratzen du. Atzipen-mota batean klik egin eta mota horrentzako ezarpenak behean zehatz ditzakezu.

Zehaztutako atzipena onartuta daukatenen zerrendan gehitu nahi duzun fitxategiaren izena idazteko lekua eskaintzen dizu. Fitxategi-izen osoa idatz dezakezu, edota komodinak erabili, hala nola *.exe.

Zehaztutako atzipena zein fitxategirentzat onartuko den zerrendatzen du.

Elementua baimen hauek hartzen dituen zerrendan gehitzen du.

Hautatutako elementua zerrendatik kentzen du.

Zehaztutako atzipena onartuta daukatenen zerrendatik kendu nahi duzun fitxategiaren izena idazteko lekua eskaintzen dizu.

Zehaztutako atzipena onartuta ez duten fitxategiak zerrendatzen ditu.

Fitxategiaren URL kode-baserako atzipena onartuko duzun ala ez zehazten du.

Ikusten edo aldatzen ari zaren atzipen-mota bistaritzen du.

Zehaztutako atzipena zein erregistro-sarrerarentzat onartuko den adierazten duen zerrendan gehitu nahi duzun erregistro-sarreraren izena idazteko lekua eskaintzen dizu.

Zehaztutako atzipena zein erregistro-sarrerarentzat onartuko den zerrendatzen du.

Zehaztutako atzipena onartuta daukatenen zerrendatik kendu nahi duzun erregistro-sarreraren izena idazteko lekua eskaintzen dizu.

Zehaztutako atzipena onartuta ez duten erregistro-fitxategiak zerrendatzen ditu.

Java aplikazioek elkarrizketa-koadroak sor ditzaketen ala ez zehazten du.

Java aplikazioek goi-mailako leihorik sor dezaketen ala ez zehazten du.

Java aplikazio batek goi-mailako leihoa sortzea eskatzen duenean abisua bistaratuko den ala ez zehazten du.

Java aplikazioek informazioa ebaki, kopiatu edo itsasteko ordenadoreko Arbela erabiliko duten ala ez zehazten du.

Java aplikazioei sistema-propietateetarako mugarik gabeko atzipena onartzen zaien zehazten du.

Adierazten dituzun sistema-propietate eta atzizkien atzipena onartzen dela eta kanpoan uzten dituzun sistema-propietateena ukatzen dela zehazten du.

Java aplikazioek atzi ditzaketen atzizkiak idazteko lekua eskaintzen dizu.

Java aplikazioek atzi ditzaketen sistema-propietateak idazteko lekua eskaintzen dizu.

Java aplikazioek atzitzea nahi ez duzun sistema-propietateak idazteko lekua eskaintzen dizu.

Baimen publikoko objektu honekin asoziatuta dagoen kargatzaile-mota bat onartzen den ala ez zehazten du.

Baimen publikoko objektu honekin asoziatuta dagoena ez den beste kargatzaile guztiak hartzen dituen kargatzaile-mota bat onartzen den ala ez zehazten du.

Sistema-klase publikoak hartzen dituen kargatzaile-mota bat onartzen den ala ez zehazten du.

Baimen-objektu honekin asoziatuta dagoen kargatzaile-mota bat onartzen den ala ez zehazten du..

Baimen-objektu honekin asoziatuta dagoena ez den beste kargatzaile guztiak hartzen dituen kargatzaile-mota bat onartzen den ala ez zehazten du

Sistema-klase deklaratuak hartzen dituen kargatzaile-mota bat onartzen den ala ez zehazten du s.

Erabiltzaileak onartzen badu, Java aplikazioek fitxategiak irakurriko dituzten ala ez zehazten du.

Erabiltzaileak onartzen badu, Java aplikazioek fitxategietan idatziko dituzten ala ez zehazten du.

Java aplikazioek erabiltzailearen ordenadoreko zenbat leku erabili ahal izango duten zehazten du.

Erabiltzaileak Internet fitxategi guztientzat zehaztutako leku-mugak Java aplikazioek ezikusi egingo dituzten ala ez zehazten du.

Noraezeko fitxategirik sor daitekeen ala ez zehazten du. Noraezeko fitxategiak erabiltzailearen profilean sortzen dira eta erabiltzaileak log egiten duen ordenadore guztietan egoten dira.

Onartu exekuzioan zehaztutako aplikazioak exekuta daitezkeen ala ez zehazten du.

Exekuta daitezkeen programak zehazten ditu.

Exekutatzeko baimenik ez duten programak zehazten ditu.

Hari-atzipena mugarik gabe onartzen den ala ez zehazten du.

Hari-taldeen atzipena mugarik gabe onartzen den ala ez zehazten du.

Baimen-objektuak System.in korrontea ezartzea onartzen duen ala ez zehatzen du.

Baimen-objektuak System.out korronea ezartzea onartzen duen ala ez zehatzen du.

Baimen-objektuak System.err korronea ezartzea onartzen duen ala ez zehatzen du.

Inprimatzeko baimena duten klaseak inprimaketa-zerbitzuak erabiltzeko gai izango diren ala ez zehazten du.

DirectX APIen alderdi hedatuen atzipena onartzen den ala ez zehazten du.

java.lang.security JDK segurtasun-klaseen atzipena onartzen den ala ez zehazten du.

Ikusten edo aldatzen ari zaren komunikazio-mota bistaratzen du. Komunikazio-mota batean klik egin eta mota horrentzako ezarpenak behean zehatz ditzakezu.

Egin klik hemen

Honentzako ezarpenak zehazteko

Konektatzeko helbideak Ostalari espezifikoekiko komunikazio orokorra

Lotzeko helbideak Interfaze eta ataka jakinetako konexioak

Multi-emisioko helbideak Multi-emisioko talde espezifikoetan sartzea

Ataka orokorrak Ataka indibidualen arau guztiak ordeztzen dituzten ezarpenak.

Zehaztutako komunikazioa onartuta daukatenen zerrendan gehitu nahi duzun ostalari edo ataka idazteko lekua eskaintzen dizu.

Zehaztutako komunikazioa zein ostalari eta atakarentzat onartuko den zerrendatzen du.

Zehaztutako komunikazioa onartuta daukatenen zerrendatik kendu nahi duzun ostalari edo ataka idazteko lekua eskaintzen dizu.

Zehaztutako komunikazioa onartuta ez duten ostalari eta atakak zerrendatzen ditu.

Fitxategi baten URLarekin konektatu nahi duzun zehazten du.

Fitxategi batena ez den URLarekin konektatu nahi duzun zehazten du.

Baimen-ezarpen pertsonalizatuen zerrendan gehitu nahi dituzun baimenen izen eta datuak idazteko lekua eskaintzen dizu.

Gehitu dituzun baimen-ezarpen pertsonalizatuen izen eta datuak zerrendatzen ditu.

Egin klik hemen, segurtasun maila 'Altua'n ezartzeko (segurtasunik handienekoan).

Egin klik hemen, segurtasun maila 'Tartekoa'n ezartzeko.

Ezarpen pertsonalizatuak ikusteko

Baimenak sare-administratzaileak ezartzen ditu, Internet Explorer-eko Administrazio-kitaren bidez. Ezin dituzu ezarpen hauek aldatu, baina ikus ditzakezu.

- 1 Egin klik eskuin-botoiaz mahaigaineko **Internet** ikonoan, eta egin klik **Propietateaken**.
- 2 Egin klik **Segurtasuna** fitxan, eta egin klik **Pertsonalizatuan**.
- 3 Ezarpenen zerrendan, **Java** sailean, egin klik **Pertsonalizatuan**.
- 4 Egin klik elkarrizketa-koadroaren behealdeko **Java ezarpen pertsonalizatuak** botoian.

Oharrak

- Java ezarpenen elkarrizketa-koadroaren behealdean **Editatu** izeneko botoi bat agertzen bada, ezarpenak aldatzeko aukera izango duzu.
- **Editatu** izeneko botoirik agertzen ez bada, baina ezarpenak aldatu behar badituzu, jarri harremanetan sare-administratzailearekin.

{button ,AL("A_IDH_SEC_ALERT_MORE_INFO")} [Inguruko gaiak](#)

Elkarrizketa-koadro hau itxi eta egin dituzun aldaketa guztiak gordetzen ditu.

Elkarrizketa-koadro hau ixten du, egin dituzun aldaketak gorde gabe.

Zona-editorea' elkarrizketa-koadroa

Zona honetan, baimenak Sinatu Gabea, Onartuta edo Galdetu/Ukatu gisa ezar ditzakezu. Sinatu Gabe edo Onartuta gisa ez dauden baimenak Galdetu/Ukatu gisa ezarriko dira.

Galdetu/Ukatu gisa ezarritako baimenetan, baimen espezifiko batzuk Galdetu gisa ezar ditzakezu, gainerakoak Ukatu gisa utziz. Edo baimen espezifiko batzuk Ukatu gisa ezar ditzakezu, gainerakoak Galdetu gisa utziz.

Baimen guztiak automatikoki onartu nahi badituzu, edizio-koadro bakoitza ireki eta baimenak aktibatzen ibili beharrik gabe, **Onartu baimenen sorta osoa** hauta dezakezu.

'Baimen pertsonalizatuak' elkarrizketa-koadroa

Elkarrizketa-koadro honetan, sare-administratzaileak zehaztutako Java baimenak bistaratzen dira.

Java aplikazio batek fitxategi-atzipena eta ordenadoreko beste baliabide batzuk behar izan ditzake exekutatu ahal izateko. Ekintza horietako bakoitza egiteko baimen espezifiko bat behar da. Sare-administratzaileak zehaztuta izango du zenbat eta zein baimen onartu. Onartzen diren baimenen kasuan, sare-administratzaileak zehazten du baimen horiek eskatzen direnean zuk horren berri izango duzun ala ez. Bestela, Java aplikazioak sare-administratzaileak automatikoki onartutako baimenak baino gehiago eskatzen dituenean jakinaraziko zaizu.

Etiketa hauetako bakoitzak hiru baimen-sortetako bat adierazten dute:

Sinatu Gabea Sinadurarik gabe behera kargatutako edukiei ematen zaizkien baimenak

Onartuta Oniritzirik behar ez duten baimenak

Galdetu/Ukatu Erabiltzailearen oniritzia behar duten edo erabat ukatzen diren baimenak

Etiketa hauei ondorengo baimen hauek esleai dakizkieke:

[Fitxategi SI](#)

[Sareko SI](#)

[Haria](#)

[Propietatea](#)

[Exekuzioa](#)

[Islatzea](#)

[Inprimaketa](#)

[Erregistroa](#)

[Segurtasuna](#)

[BezeroBiltegia](#)

[UI](#)

[Sistema-korronteak](#)

[Erabiltzailearentzako Fitxategi SI](#)

[Multimedia](#)

[Pertsonalizatua](#)

Fitxategi SI fitxa

Erabili fitxa hau, zona honentzat baimen-sorta honetan onartu nahi dituzun fitxategi eta fitxategi-motak hautatzeko. Besterik adierazi ezean, fitxategi guztiak kanpoan geratuko dira; beraz, ez duzu kanpoan utzi nahi duzun fitxategirik adierazi beharrik, barnean sartzen dituzun fitxategien azpimultzo bat ez bada. Adibidez, multimedia fitxategi-mota bat barnean sartzen baduzu (*.avi), mota horretako fitxategi jakin bat kanpoan utz dezakezu (huge.avi). Baimen desberdinak zehatz ditzakezu atzipen-mota desberdinen kasuan: Irakurtzeko, Idazteko eta Ezabatze.

Oharra

- Elkarrizketa-koadro honetako edozein ezarpenen laguntza eskuragarri duzu. Hautatu edo egin klik informazioa nahi duzun botoi edo ezarpenaren gainean eta sakatu F1.

Erregistroa fitxa

Erabili fitxa hau, zona honentzat baimen-sorta honetan onartu nahi dituzun erregistro-sarrerak hautatzeko. Besterik adierazi ezean, erregistro-sarrera guztiak kanpoan geratuko dira; beraz, ez duzu kanpoan utzi nahi duzun erregistro-sarrerarik adierazi beharrik, barnean sartzen dituzun erregistro-sarreren azpimultzo bat ez bada. Adibidez, HKEY_CURRENT_USER barnean sartzen baduzu, sarrera horren azpiko erregistro-kategoria jakin bat kanpoan utz dezakezu (HKEY_CURRENT_USER\NETWORK). Baimen desberdinak zehatz ditzakezu atzipen-mota desberdinen kasuan: Irakurtzeko, Idazteko eta Ezabatzeko.

Oharra

- Elkarrizketa-koadro honetako edozein ezarpenen laguntza eskuragarri duzu. Hautatu edo egin klik informazioa nahi duzun botoi edo ezarpenaren gainean eta sakatu F1.

UI fitxa

Erabili fitxa hau, erabiltzaile baten ordenadorean Java aplikazio batek eska ditzakeen ekintza ikusgarrienetako batzuen baimen espezifikoak zehazteko. Ekintzak izan daitezke, besteak beste, leiho edo elkarrizketa bat sortzea, sistema-propietateak atzitzea (adibidez, .ini fitxategiak) edo informazioa egiaztatzea nola egituratua dagoen zehazteko, programak informazio hori kontsultatu ahal izan dezan. Baimen horiek erabiltzailearen Java ezarpen pertsonalizatuetan zerrendatu daitezke, edota 'Segurtasun-abisua' elkarrizketa-koadroan, zuk automatikoki onartzen dituzun baimenak baino gehiago eskatzen baditu Java aplikazioak.

Oharra

- Elkarrizketa-koadro honetako edozein ezarpenen laguntza eskuragarri duzu. Hautatu edo egin klik informazioa nahi duzun botoi edo ezarpenaren gainean eta sakatu F1.

Hainbat fitxa

Erabili fitxa hau fitxategiak irakurri, idatzi eta gordetzeko baimenak eta bestelakoak zehazteko. Baimen horiek erabiltzailearen Java ezarpen pertsonalizatuetan zerrendatu daitezke, edota 'Segurtasun-abisua' elkarrizketa-koadroan, zuk automatikoki onartzen dituzun baimenak baino gehiago eskatzen baditu Java aplikazioak.

Oharra

- Elkarrizketa-koadro honetako edozein ezarpenen laguntza eskuragarri duzu. Hautatu edo egin klik informazioa nahi duzun botoi edo ezarpenaren gainean eta sakatu F1.

Sareko SI fitxa

Erabili fitxa hau onartuko dituzun konexio-motak, ostalariak eta atakak zehazteko. Besterik adierazi ezean, ostalari eta ataka guztiak kanpoan geratuko dira; beraz, ez duzu kanpoan utzi nahi duzun ostalari eta atakarik adierazi beharrik, barnean sartzen dituzun ostalari eta ataken azpimultzo bat ez bada. Baimen desberdinak zehatz ditzakezu atzipen-mota desberdinen kasuan: Konektatzeko helbideak, Lotzeko helbideak, Multi-emisiokoak, eta Ataka orokorrak.

Oharra

- Elkarrizketa-koadro honetako edozein ezarpenen laguntza eskuragarri duzu. Hautatu edo egin klik informazioa nahi duzun botoi edo ezarpenaren gainean eta sakatu F1.

Pertsonalizatua fitxa

Erabili fitxa hau Baimen-ezarpen pertsonalizatuak ezartzeko, izenez edo datu-motaz.

Oharra

- Elkarrizketa-koadro honetako edozein ezarpenen laguntza eskuragarri duzu. Hautatu edo egin klik informazioa nahi duzun botoi edo ezarpenaren gainean eta sakatu F1.

Fitxategien atzipena lortzeko edo kontrolatzeko eskaera edo baimena.

Sare-eragiketak edo sareko ekintzak egiteko eskaera edo baimena.

Hariak eta hari-taldeak sortu eta kudeatzeko gaitasuna kontrolatzen duen baimena.

Sistema-propietate orokorrak atzitu eta kudeatzeko eskaera edo baimena.

Bestelako programak kontrolatu edo exekutatzeko eskaera edo baimena

Islatze-eragiketak egiteko edo islatze APIak klase jakin bateko kideak atzitzeko erabili ahal izateko eskaera edo baimena.

Inprimaketa-APIen atzipena kontrolatzen duen baimena.

Erregistroa atzitzeko gaitasuna kontrolatzen duen baimena, edo erregistro-gako bat atzitzeko eskaera.

java.lang.security JDK segurtasun-klaseen atzipena kontrolatzen duen baimena.

BezeroBiltegi klasean erabilgarri dagoen bezero-alderdiko biltegitzearen atzipena kontrolatzen duen baimena.

Erabiltzaile-interfazearen APIen alderdi hedatu bat erabiltzeko eskaera, AWTaren eginbide hedatuetako batzuk erabiltzeko gaitasuna kontrolatzen duen baimena.

java.lang.System.in, **java.lang.System.out**, eta **java.lang.System.err**-en balioak aldatzeko gaitasuna kontrolatzen duen baimena.

Erabiltzaileari zuzendutako S/I eragiketak egin edo kontrolatzeko eskaera edo baimena.

Multimedia-eginbide hobetuen erabilpena onartzeko baimena.

Eragiketa pertsonalizatuak egiteko baimena edo eskaera.

